

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 31n hartutako erabakiaren laburpena; bertan onartzen baitira eskola-ingurunean antolatutako hezkuntza-jarduerak garatzeko dirulaguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarriak, 2024-2025 ikasturtea

BDNS(Identif.): 769627.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/769627>).

Lehena. Onuradunak

Deialdi honetan parte hartu dezakete eta laguntzen onuradun izan daitezke honako erakunde hauek: Ikasleen Gurasoen Elkarteak (IGE), Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Derrigorrezko Hezkuntzako mailak dituzten Vitoria-Gasteizko ikastetxeetakoak; Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Derrigorrezko Hezkuntzako mailak dituzten Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako irakaskuntza-kooperatibak, baldin eta guraso-elkarterik ez badute eta horien berezko funtzioak beren gain hartzen badituzte; eta Vitoria-Gasteizko Helduen Hezkuntzako (HHI) ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteak. Gurasoen Elkarteak eta irakaskuntza-kooperatibak horiek kide diren federazioak ordezkatu ahal izango ditu, baldin eta ordezkaritza bi alderdiek sinatuta ematen bada.

Bigarrena. Helburua

Dirulaguntzen deialdiaren xedea da 2024-2025 ikasturtean eskola-ingurunean antolatutako hezkuntza-jarduerak egiten laguntzea eta jarduera horien hartzaille diren erakundeek eskola-elkartean esku hartu dezaten bultzatzea, hori guztia ikasleen prestakuntza integralerako eta eskola-arrakastarako faktore nabarmena den aldetik.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko maiatzaren 31ko erabakiaren bitartez onetsiak; ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 195.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea oinarri hauen deialdiari dagokion laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2024ko irailaren 30era arte egongo da irekita (egun hori barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 7a

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA